



Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez

Maia Duguine, Aritz Irurtzun

► **To cite this version:**

Maia Duguine, Aritz Irurtzun. Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez. X. Artiagoitia & J.A. Lakarra. Gramatika Jaietan: Patxi Goenagaren Omenez, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, pp.195-208, 2008, ASJUren gehigarriak LI. artxibo-00607120

HAL Id: artxibo-00607120

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00607120>

Submitted on 7 Jul 2011

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

OHAR BATZUK NAFAR-LAPURTERAZKO GALDERA ETA GALDEGAI INDARTUEZ¹

MAIA DUGUINE (UPV/EHU & U. NANTES) & ARITZ IRURTZUN (UPV/EHU & IKER/CNRS)

ABSTRACT:

Lan honetan, nafar-lapurterazko galdera eta galdegai egitura berezi batzuk aztertzen ditugu, ‘egitura indartuak’ izendatzen ditugunak. Haien sintaxia eta semantikaren puntu nagusien deskribapen bat egiten dugu lehenik. Hitz hurrenkeraren aldetik, galdera eta galdegai egitura estandarrengandik hurbilak dira. Esaldi konplexu eta NZ edo galdegai anitzeko egiturei dagokienez, aldiz, oso jokamolde desberdina erakusten dute. Interpretazioaren aldetik, frantsesezko galdera eta erantzun estrategiekiko egiten dugun konparazioak erdibitutako perpausek bezalako jokabidea dutela erakusten du. Azkenik, egitura hauen analisi baterako ideiak iradokitzen ditugu. Egitura hauetan gertakarien deskripzio definitu bat dagoela proposatzen dugu, kuantifikatzaile exhaustibo batek sortzen duena. Analisi honek, erakusten dugu, lanaren lehen partean aurkeztutako egitura indartuen ezaugarri sintaktiko eta semantikoak azaltzen ditu.

1. SARRERA

Artikulu honetan nafar-lapurterazko euskalkietako galdera-erantzun testuinguruetako egitura sintaktiko berezi batzuk aztertuko ditugu. Egitura hauek *galdera indartu egitura* eta *galdegai indartu egitura* izendatuko ditugu. Euskalki hauetan besterik aurkitzen ez ditugun egiturok galdegai eta galdera egitura estandarrekin alternantzia agertzen dira, hots, ez dira Mendebaldeko euskalkietako galdera eta galdegai egitura ‘estandarren’ aldaki dialektal hutsa, egitura ‘estandar’ hauetaz gain erabiltzen diren gainerako egitura batzuk baizik². Aipatutako alternantzia behean ilustratua da: (1)-eko galdera-erantzun pareak galdera eta galdegai egitura estandarrek erakusten ditu, eta (2)-koak egitura indartuak:

- | | | | |
|-----|----|-------------------------------------|------------------------------------|
| (1) | a. | Nork ikusi du Jon? | <i>Galdera Egitura Estandarra</i> |
| | b. | [Mirenek] _G ikusi du Jon | <i>Galdegai Egitura Estandarra</i> |
| (2) | a. | Nork du Jon ikusi? | <i>Galdera Egitura Indartua</i> |

¹ Ohore handia da guretzako Patxiren omenezko liburu honetan parte hartzea eta gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu argitaratzaileei. Halaber, mila esker ere hemen garatutako ideiak modu batean zein bestean atontzen lagundu diguten guztioi; bereziki Jon Casenave, Ricardo Etxepare, Beñat Oyharçabal eta Myriam Uribe-Etxebarriari.

² Rebuschi 1983/1997-k dioenez honelako egiturak auzo-euskalki batzuetan ere agertzen dira. Ikus ere Osa 1990.

Galdera eta galdegai indartu egiturak aspaldian ditugu ezagunak euskalaritzan (ikus, besteak beste, Lafitte 1944, Rebuschi 1983/1997, Oyharçabal 1985, Osa 1990, Etxepare & Ortiz de Urbina 2003), baina, guk dakigunaren arabera, egiturok ez dira oraino berariaz eta sistematikoki aztertuak izan beren alderdi semantiko-pragmatiko eta sintaktikoak kontutan hartuz. Honela bada, artikulu honetan galdera eta galdegai egitura indartuen sintaxi eta semantikaren aurkezpen bat egin nahi genuke egitura hauen ezaugarri nagusi batzuk aipatuz eta analisi posible bat iradokiz.

Artikuluaren antolamendua honakoa da: lehenik, bigarren atalean perpaus bakunetako galdera eta galdegai egitura indartuen hitz hurrenkera murriztapenen aurkezpen bat egiten da. Ondotik, hirugarren atalean mendeko perpausetako jokamoldea ikertzen da mugimendu luzeko eta *pied-piping* estrategietako propietateak aztertuz. Laugarren atalean egitura indartu hauek NZ- eta galdegai anitzeko perpausak sortzeko ematen dituzten bideak azaltzen dira. Bosgarren atalean egitura hauek antzeko propietateak dituzten beste egitura batzuekin konparatzen dira: frantsesezko bi galdera estrategiekin (*in situ* eta mugimendu bidezkoa) eta perpaus erdibituekin (*cleft*). Azkenik, seigarren atalean egitura indartu hauen analisi posible bat iradokitzen dugu. zazpigarren atalean artikuluaren orotariko ondorioak aurkezten ditugu eta etorkizunerako langaiak pausatzen.

2. HITZ HURRENKERA

Galdera edo galdegai egitura estandarrean (ikus (1a)), galdegaia edo galde-sintagma aditz nagusiaren ezkerreko lehenengo posizioan agertzen da aditz nagusia aditz laguntzailearen ezkerrean agertzen delarik. Bi adizkiek osagai bat osatzen dute, eta partikula modal bakan batzuek gain ('omen', 'ote'...) bien artean ezin da ezer tartekatu. Adibidez, 'atzo' bezalako adberbio baten distribuzioa nahiko librea da esaldiaren barruan (ik. Osa 1990, Elordieta 2001), honela (3)-ko esaldi guztiak erabat gramatikalak dira, baina 'atzo' ezin ager daiteke aditz nagusi eta aditz laguntzailearen artean (ik. (4)):

- (3) a. Atzo Jonek Miren ikusi zuen.
 b. Jonek atzo Miren ikusi zuen.
 c. Jonek Miren atzo ikusi zuen.
 d. Jonek Miren ikusi zuen atzo.

- (4) *Jonek Miren ikusi atzo zuen.

Bi aditzok, honenbestez, sintagma bat osatzen dute galdegai zabaleko egituretan eta halaber gertatzen da galdegai eta galdera egituretan; ezin da aditz nagusi eta laguntzailearen artean tartekatu:

- (5) a. *[Jonek]_G ikusi atzo zuen Miren.
b. *Nor ikusi atzo zuen Jonek?

Ezaguna den bezala, NZ-sintagma edo galdegaia eta aditz konplexu horren arteko ondokotasun baldintza ere oso sendoa da, eta hortaz, analisi tradizionaletan euskarazko NZ eta galdegai egituretan NZ-sintagmak eta galdegaia aditzarekiko ondokotasuna eskatzen dutela esan ohi da ('Altuberen legea'), bestela egitura agramatikala baita (ik., besteren artean, Ortiz de Urbina 1989). Ikus, adibidez, (1)-eko adibideen aldaki hauek non galdegai/NZ-sintagma eta aditzaren arteko ondokotasuna ez den gordetzen:

- (6) a. *Nork gaur ikusi du Jon?
b. *[Mirenek]_G gaur ikusi du Jon

NZ eta galdegai egitura indartuetan, eskema ezberdina da. (2a)-n ikusi bezala, galde-hitzaren eskuinean aditz laguntzailea baizik ez da, aditz nagusia perpausaren bukaeran agertzen da. Gauza bertsua gertatzen da (2b)-ko galdegai egituretan. Badirudi beraz egitura estandarrean bezala NZ-sintagma/aditz eta galdegai/aditz ondokotasunaren baldintzak indarrean daudela baina modu ezberdinean aplikatzen direla: NZ-sintagma edo galdegaia aditz laguntzailearen ezkerrean egotearekin 'nahikoa' da. Honela bada, NZ-sintagma edo galdegaia eta aditz laguntzailearen arteko ondokotasuna da premia daukana: galde-sintagma edo galdegaia aditz nagusiaren ezkerrean agertzen baldin bada aditz laguntzailea perpaus bukaeran utzirik emaitza agramatikala gertatzen da, (7)-n ikus daitekeen bezala:

- (7) a. *Nork ikusi Jon du?
b. *[Mirenek]_G ikusi Jon du.

Gisa berean, ezin da deus izan galde-hitza edo galdegaia eta aditz laguntzailearen artean:

- (8) a. *Nork gaur du Jon ikusi?
b. *[Mirenek]_G gaur du Jon ikusi.

Azpimarratu behar dugu bestalde (2)-ko eskemaz gain, galdera eta galdegai indartuak beste eskema batean ere ager daitezkeela. Konfigurazio hau (9)-ko parean irudikatua da:

- (9) a. Nork du ikusi Jon?
b. [Mirenek]_G du ikusi Jon.

Honelako egituretan, galde-hitza edo galdegaia ez den osagaia, kasu honetan ‘Jon’ osagarri zuzena, perpausaren bukaeran agertzen da, aditz nagusiaren eskuinean. Horren ondorioz, aditz laguntzailea eta aditz nagusia bata bestearen ondoan gertatzen dira, egitura estandarrean daukatenaren alderantzizkoa den hurrenkeran³. Lehenago ikusi bezala, ordea, bi adizkiek ez dute bat egiten egitura indartu honetan, (10)-k erakusten duenez beste elementu batek bereiz baititzake.

- (10) a. Nork dio ordenagailua konpondu Joni?
b. [Mirenek]_G dio ordenagailua konpondu Joni.

Bestalde, NZ-sintagmak edo galdegaia ez diren elementuak NZ-sintagma/aditz laguntzaile edo galdegai/aditz laguntzaile multzoaren eskuinean bezala, ezkerrean ere agertu daiteke. Ikus (11)-ko adibideak. Aditz nagusia, ordea, ezin da multzo honen ezkerrean agertu (ikus (12)):

- (11) a. Jon nork du ikusi?
b. Jon [Mirenek]_G du ikusi.

- (12) a. *Ikusi nork du Jon?
b. *Ikusi [Mirenek]_G du Jon.

Azkenik, aztertutako kasuetan ez da argumentu-adjuntu asimetriarik, adjuntuek goragoko adibideetako *Jon* objektu zuzenak bezalako askatasuna dutelako:

³ Badira adiera diferentzia txiki batzuk (2)-ko eta (9)-ko esaldien artean. Ñabardura horiek ez ditugu oraindik ongi definituak; hortaz hauen analisia etorkizunerako utziko dugu.

- (13) a. Nor da atzo jin?
 b. [Miren]_G da atzo jin.
- (14) a. Nor da jin atzo?
 b. [Miren]_G da jin atzo.
- (15) a. Atzo nor da jin?
 b. Atzo [Miren]_G da jin.

Datu hauetarik ateratzen den eskema orokorra (16)-koa da: NZ-sintagma edo galdegaia eta aditz laguntzailea bata bestearen ondoan izan behar dira, aditz nagusia horren eskuinean, eta gainerateko osagaiak edozein tartetan.

- (16) (XP) ... [XP]_G A.Lag ... (XP) A.Nag (XP)
 (XP) ... NZ A.Lag ... (XP) A.Nag (XP)

Egitura indartuaren eskema orokor hori ez da batere egitura estandarrengandik urrun: azken honetan ere NZ-aditz edo galdegai-aditz ondokotasuna mantendua izaki, gainerako elementuen kokagunea 'askea' baita, (17) eta (18)-ko bikoteetan ikus daitekeen bezala:

- (17) a. Jonek [Mireni]_G konpondu dio ordenagailua.
 b. Jonek ordenagailua [Mireni]_G konpondu dio
- (18) a. Jonek [Mireni]_G dio ordenagailua konpondu.
 b. Jonek ordenagailua [Mireni]_G dio konpondu.

Atal honetan, NZ eta galdegai indartu egituren barruko hitz hurrenkera datuak begiratu ditugu. NZ eta galdegai egitura estandarretatik hurbilak dira oso. Desberdintasun bakarra zera da, NZ-sintagma edo galdegaia aditz konplexuaren ezkerrean agertzeko ordez aditz laguntzaile soilaren ezkerrean agertzen direla.

Ondoko ataletan, egitura indartua egitura estandarri konparatzen segituko dugu, gure atentzioa bi puntutan zentratuz: esaldi konplexuen kasua alde batetik (3. atala), eta NZ edo galdegai anitzen kasua bestetik (4. atala).

3. MENDEKO PERPAUSETAKO JOKAMOLDEA

Atal honetan egitura indartuetan ‘ateraketa’ nolakoa den aztertuko dugu, euskarazko NZ eta galdegai egitura estandarrez dakigunarekin alderatuz.

NZ eta galdegai egitura estandarretan, mendeko perpauseko osagai bat delarik NZ-sintagma edo galdegai, sintagma horrek bi jokamolde segi ditzake. Lehen jokamoldea edo estrategia mugimendu luzearena da: delako elementua perpaus nagusira mugitzen da, bertako aditzaren ezkerrean (19a). Bigarrena, *pied-piping*-a: NZ-sintagma edo galdegaia mendeko perpauseko aditzaren ezkerrean kokatzen da, eta perpaus osoa aditz nagusiaren ezkerrean mugitzen da (19b) (ikus Ortiz de Urbina 1989 *et seq.*, Irurtzun 2007, besteren artean).

- (19) a. [Mirenek]_G erran dute mutilek [*t* ikusi duela Jon]. *Mugimendu luzea*
b. [Jon [Mirenek]_G ikusi duela] erran dute mutilek *t*. *Pied-piping*

Hala ere, mugimendu luzearen eta *pied-piping*aren estrategia hauek ez dira hain desberdinak, aldi oro mota bereko operazioak azaleratzen baitira: NZ-sintagma eta galdegaiek aditzarekiko ondokotasun efektua bai mendeko perpausean eta bai perpaus nagusian ere eragiten dute aldi oro. Horrela, (19a)-ko adibidean, perpaus nagusiko ondokotasuna argi da, eta mendeko perpausean ondokotasunaren efektuak asma daitezke, aditza objektuaren ezkerrean delako. Gisa berean, (19b)-ko adibidean, mendeko perpausean ondokotasuna argiki ikusten da, eta perpaus nagusian zeharka: mendeko perpaus osoa da aditzaren ezkerreko posizioa betetzen duena. Ondorioz, ondokotasun efektuak agerian uzten duena mugimendu operazio hauen ziklikotasuna da (ik. gorago aipatutako erreferentziak).

Ikusiko dugunez, egitura indartuek ez dute horrelako ziklikotasunik erakusten. Izan ere, NZ eta galdegai egitura indartuetan, lekualdatzea bi perpausetan gertatzen delarik, emaitza agramatikala da. Ikus (20)-eko adibideak.

- (20) a. *[Mirenek]_G dut erran [*t* duela Jon ikusi].
b. *[Jon [Mirenek]_G duela ikusi] dut erran *t*.

Areago, perpaus nagusian lekualdatze ‘estandarra’ egiten baldin bada, esaldiek oso txarrak izaten segitzen dute (21).

- (21) a. */??[Mirenek]_G erran dut [*t* duela Jon ikusi].

- b. */??[Jon [Mirenek]_G duela ikusi] erran dut *t*.

Hortaz, egitura indartuak mendeko perpausetan ezinezkoak direla esan daiteke. Hori bai, perpaus nagusian egitura indartuak gramatikalak dira eta ondorioz (22)-n adierazten den eskema da esaldi konplexuetarako eskuragarri den estrategia bakarra: mendeko perpausentzako ondokotasun ‘estandarra’ mantentzen da, eta egitura indartua perpaus nagusian azaleratzen da⁴.

- (22) a. [Mirenek]_G dut erran [*t* ikusi duela Jon].
b. [Jon [Mirenek]_G ikusi duela] dut erran *t*.

NZ eta galdegai egitura indartua perpaus nagusietara mugatua da beraz, NZ eta galdegai egitura estandarra ez bezala. Gainera, biak bateragarriak dira esaldi berean: mendeko perpausentzako NZ-sintagma edo galdegai estandarra dena NZ-sintagma edo galdegai indartua izan daiteke perpaus nagusian. Hortaz, egitura indartua ez da berez mugimendu zikliko batek eragindakoa; perpaus nagusiko ezkerreko periferiari loturiko fenomeno batzuk.

4. NZ ETA GALDEGAI ANITZEZKO EGITURAK

Atal honetan egitura indartuak NZ eta galdegai anitzeko perpausak osatzeko ematen dituzten bideak aztertuko ditugu.

Erdialdeko eta Mendebaldeko euskalkietan bi estrategia aipatzen ohi dira NZ anitzeko galderak osatzeko; (i) NZ bat ezkerretaratzea gainontzekoak *in situ* utzita, (23a)-n bezala eta (ii) NZ guztiak ezkerretaratzea (23b)-n bezala (ik., besteak beste, Reglero 2002, Jeong 2007):

- (23) a. Nork ekarri du zer?
b. Nork zer ekarri du?

Euskara bezalako hizkuntzetan honelako galderek beti ere bikote-zerrenda motako erantzunak eskatzen dituzte; hau da, erantzun bezala “X-k Y ekarri du” gisako esaldi bat ematea ez da aski, (23) bezalako galdera batek hainbat jendek hainbat gauza ekarri dituztela inplikatzeko. Erantzunak, galderak bezalaxe, bi motatakoak izan daitezke; (i) elementu fokal bakarra ezkerretaraturik (24a) ala (ii) elementu guztiak ezkerretaraturik (24b):

⁴ Hiztun askok (22a) (22b) baino txarragoa iruditzen zaiela diote, baina kontraste bera daukatenez (19)-ko egitura estandarrekin, egitura indartuen ezaugarriei kanpoko efektu bat dela esan daiteke, dudarik gabe.

- (24) a. Jonek ekarri du ardoa, Mirenek ekarri du sagardoa...
 b. Jonek ardoa ekarri du, Mirenek sagardoa ekarri du...

NZ edo galdegai anitzeko egiturak, ordea, erabat ezinezkoak dira galdera edo galdegai egitura indartuetan. Adibidez, (25)-ko galderak oro agramatikalak gertatzen dira:

- (25) a. *Nork du ekarri zer?
 b. *Nork zer du ekarri?
 c. *Nork du zer ekarri?

Eta halaber gertatzen da haien balizko erantzunekin, hots, galdegai anitzeko egiturekin:

- (26) a. *[Jonek]_G du ekarri [ardoa]_G, [Mirenek]_G du ekarri [sagardoa]_G...
 b. *[Jonek]_G [ardoa]_G du ekarri, [Mirenek]_G [sagardoa]_G du ekarri...
 c. *[Jonek]_G du [ardoa]_G ekarri, [Mirenek]_G du [sagardoa]_G ekarri...

Berriz ere, hitz hurrenkera soila baino haratago so egiterakoan NZ eta galdegai egitura indartuak eta egitura estandarrek oso desberdinak direla agertzen zaigu. Egitura indartuetan NZ edo galdegai anitzeko egiturak sinpleki agramatikalak dira.

Ondoko atalean egitura indartuen alderdi semantikoa begiratuko dugu, bere alderdi auresuposizional eta kontrastiboak kontutan hartuz. Horretarako antzeko ezaugarriak dituzten beste fenomeno batzuekin konparatuko ditugu; frantseseko galdera-estrategia desberdinekin eta *cleft* egiturekin hain zuzen ere.

5. BESTE FENOMENO BATZUEKIKO KONPARAZIOAK

Literaturan, interpretazioaren aldetik galdegai eta galdera egitura indartuak egitura estandarrekiko alde txikia dutela ontzat hartu da, ñabardura kontu bat. Guk ‘indartu’ deitu ditugun egiturak enfatikoagoak direla esaten da, Lafitte 1944: 48-ren hitzetan “le relief est très accusé, même violent”.

Baina zer efektu da zehazki ‘indar’ horren atzean? Atal honetan ikusiko dugunez, antzeko enfasi ukituak erakusten dituzten beste egitura batzuek badaude: (i) frantseseko *in situ* galderak eta (ii) *Cleft* eta *pseudocleft* egiturak. Euskarazko NZ eta galdegai indartuak egitura hauekiko konparatuko ditugu.

5.1. Frantsesezko lau galdera estrategiak

Boeckx 1999-ek, Chang 1997-i jarraiki, frantsesezko galdera estrategia desberdinak aztertzerakoan, batetik bestera dauden interpretazio ezberdintasunak azpimarratzen ditu (ik. ere Cheng & Rooryck 2000, Baunaz 2005).

Frantsesez lau estrategia daude NZ-galdera bat egiteko. Ezkerretaratze estrategian (*fronting*), NZ-sintagma perpausaren ezkerrean agertzen da, eta subjektu-aditz laguntzaile inbertsioa gertatzen da (27a). Ezkerretaratze berrindartuan ere (*reinforced fronting*) NZ-sintagma ezkerretaratua da, baina ‘est-ce que’ formula gehitzen zaio berrindartzaile gisa, eta ez da subjektu-aditz laguntzaile inbertsiorik (27b). Ondotik, *in situ* egituran NZ-sintagma bere jatorrizko posizioan gelditzen da (27c), eta azkenik, *cleft* egitura, Mitxelenak 1981: 158 ‘perpaus erdibitu’ deitutakoa. Hau bi perpausen konbinaketa da, *cleft*-eko perpausa eta *coda* perpausa deituko ditugunak (27d):

- (27) a. Qu’as-tu vu?
zer AUX zu ikusi
“Zer ikusi duzu?”
- b. Qu’est-ce que tu as vu?
zer EST-CE QUE zu AUX ikusi
“Zer ikusi duzu?”
- c. Tu as vu quoi?
zu AUX ikusi zer
“Zer ikusi duzu?”
- d. (C’est) quoi que tu as vu?
EXPL da zer C zu AUX ikusi
“Zer da ikusi duzuna?”

Hauetako edozien galderak bi motatako erantzunak jaso ditzake: erantzun ‘estandarra’ (28a), ala egitura erdibitutako erantzuna (28b). (28a)-koa (27a-c)-ko galderen erantzun naturala gertatzen da, eta (28b)-koa (27d)-ko galderarena.

- (28) a. J’ai vu un cochon volant.
ni AUX ikusi ART zerri hegalaria
“Zerri hegalaria bat ikusi dut.”

- b. C'est un cochon volant que j'ai vu.
EXPL AUX ART zerri hegalari C ni AUX ikusi
 “Zerri hegalari bat da ikusi dudana.”

Interesgarriki, ordea, lau galdera estrategiek ez dute ezezko erantzunak jasotzeko gaitasun berdina. Ezkerretaratze eta berrindartutako galderari ‘ezer ez’ bezalako erantzun bat ematen ahal zaie (29)-(30), *in situ* eta erdibitutako galderari aldiz, ez (31)-(32):

(29) A: Qu’as-tu vu? “Zer ikusi duzu?”
 B: Rien. “Deus/ezer ez”

(30) A: Qu’est-ce que tu as vu? “Zer ikusi duzu?”
 B: Rien. “Deus/ezer ez”

(31) A: Tu as vu quoi? “Zer ikusi duzu?”
 B: #Rien. “Deus/ezer ez”

(32) A: (C’est) quoi que tu as vu? “Zer da ikusi duzuna?”
 B: #Rien. “Deus/ezer ez”

Areago, (32A)-ren balizko erantzuna izango litzatekeen ezezko perpaus erdibitua erabat agramatikala gertatzen da:

(33) *C’est rien que j’ai vu.
EXPL AUX ezer C ni AUX ikusi
 “(Lit.) Ezer da ikusi dudana.”

Chang 1997 eta Boeckx 1999-ek diotenez, ezezko erantzunak hartzeko gaitasuna galdera-estrategia bakoitzari datxezkion auresuposizioetan datza; ezkerretaratze eta ezkerretaratze berrindartuetan ez legoke aditzak adierazten duen gertakariaren auresuposiziorik, *in situ* eta erdibitutako egituretan, aldiz, bai. Hots, (31) eta (32)-ko galderari B-k zerbait ikusi duelako auresuposizioa atxikitzen zaie, eta (29) eta (30)-ekoei aldiz, ez. Horregatik, *in situ* eta erdibitutako egiturek ez dute adierazten duten auresuposizioaren ukaziorik onartzen.

Erdibitutako egiturek berebiziko garrantzia dute hemengo gure helburuetarako horregatik beharrezkoa da zehaztapen bat egitea. Doetjes, Rebuschi eta Rialland 2004-k bi motatako egitura erdibitu desberdintzen dituzte: ‘galdegai-hondo’ egiturak, non *cleft*-eko elementua galdegaia den eta gainerako perpausa hondo (34a-b) eta ‘galdegai zabal’ egiturak non perpaus konplexu osoa den galdegaia (34c-d). Bi egitura klaseak informazio-partiketaren arabera desberdintzen badira ere, bien arteko aldea syntaxian ere aurki daiteke: galdegai zabaleko egituretan ez bezala (34d), galdegai-hondo egituretan esaldi nagusiko subjektu-aditza inbertsioa gertatzen baita (34b) (ik. Doetjes, Rebuschi & Rialland (2004: 534, 4. oinoharra)):

- (34) a. C’est [Jean]_G qui est tombé dans l’escalier, pas ma fille.
EXPL AUX Jean C AUX erori eskaileran ez nire alaba
 “Jean erori da eskaileran, ez nire alaba”
- b. C’est [de l’eau]_G qu’a acheté Jean, pas du vin.
EXPL AUX ura C AUX erosi Jean ez ardoa
 “Ura erosi du Jeanek, ez ardoa”
- c. [C’est avec plaisir que je vous invite à ma soutenance de thèse]_G.
EXPL AUX plazerarekin C ni zuek gonbidatu nire tesi-defentsara
 “Plazerarekin gonbidatzen zaituztet nire tesi-defentsara”
- d. *[C’est avec plaisir que vous invite je à ma soutenance de thèse]_G.
EXPL AUX plazerarekin C zuek gonbidatu ni nire tesi-defentsara
 “Plazerrarekin gonbidatzen zaituztet nire tesi-defentsara”

Bi egitura moton arteko aldea interesgarria bada ere azpimarratzekoa da bi egituretan *coda*-k adierazten duena auresuposatutzat jotzen dela (ik. Rialland, Doetjes & Rebuschi 2002, Doetjes, Rebuschi & Rialland 2004). Honela, (34b)-koa bezalako adibide batean testuinguru (extra-)linguistikoaren arabera (adibidez, gonbidapen gutuna izatea) iragargarria den zerbait da, eta (34b)-ren igorleak (34b) igorritz hori plazerez egiten duela azpimarratzen du. Honenbestez, ikertzaile hauen arabera erdibitutako egitura guztietan, *coda* atalak auresuposatutako informazioa adieraziko du, izan galdegai-hondo formakoetan nahiz galdegai zabal formakoetan.

Galdegai zabaleko egitura erdibituak alde batera utzita, galdegai-hondo formakoak exhaustibotasun eta kontrastibotasun berezi batez hornituak dira. Doetjes, Rebuschi eta Rialland 2004-k, aurreko Clech-Darbon, Rebuschi eta Rialland 1999-i jarraiki, *ce*

expletiboarentzako izaera erlazional bat proposatzen dute bi predikatu erlazionatuz: *cleft*-eko predikatua (Q) *coda*-k adierazten duen predikatuari (P) exhaustiboki aplikatzen zaiola adierazten du:

$$(35) [\text{D } ce] \Rightarrow \lambda Q[Q(\lambda x(P(x)))]$$

Adibidez, (34a)-ko kasuarekin jarraituz, *ce*-k sartutako $\lambda x(P(x))$ deskripzio definituak ‘eskaileretan erori dena’ adieraziko luke, eta *cleft*-eko XP-ak (*Jean*) balio bat emango lioke deskripzio definitu honi. Honela bada, deskripzio definituak exhaustibotasun balioa ematen du auresuposizioarekin batera.

Azpimarratzekoa da honelako egitura erdibituak frantsesez ez ezik beste hainbat hizkuntzatan ere aurki daitezkeela galdegai funtzioak adieraziz, horien artean ingelesa (ik. Rochemont 1986, Hedberg 2000) eta euskara (ik. Saltarelli-eta 1988). Euskarazko adibide batzuk (36a) eta (36b)-n daude, erdibitutako egitura eta sasi-erdibitutako (*pseudocleft*) egiturenak, hurrenez hurren:

- (36) a. [Jon]_G da etorri dena.
b. Etorri dena [Jon]_G da.

Iragar daitekeen moduan honelako egituretan ezinezkoak dira ezezko erantzunak:

- (37) a. *[Ezer ez]_G da ikusi dudana.
b. *Ikusi dudana [ezer ez]_G da.

Hurrengo atalean erdibitutako egitura hauek izan ditzaketan interpretazioekin jarraituko dugu beren kontraste eta auresuposizioei erreparatuz.

5.2. Euskarazko NZ eta galdegai egitura indartuen interpretazioa

Frantsesezko datuak euskarazko egitura indartuetakoekin alderatzen baditugu argi ikus daiteke euskarazko NZ egitura estandarra frantsesezko ezkerretaratze eta ezkerretaratze berrindartu estrategiekin batera doala, eta egitura indartua *in situ* eta erdibitutako egiturearekin batera: egitura estandarretan galderak eragindako auresuposizioa bertan behera gera daiteke ezezko erantzun batekin. Egitura indartu bati, aldiz, ezin zaio ezezko erantzunik eman.

(38) A: Zer ikusi duzu?

B: Deus / fitsik ez.

(39) A: Zer duzu ikusi?

B: #Deus / fitsik ez.

Berdin gertatzen da bestelako galdera indartuekin ere:

(40) A: Nor da jin?

B: #Nehor.

Galdegai indartuekin efektu berdina lortzen da. Galdegai estandar bat ezeztatu daiteke, baina egitura indartu batean agertzen denean ezeztatzea ezinezkoa da. Horrela, adibidez, (42)-ko adibideak erakusten du norbait etorri delako auresuposizioa ezin dela bertan behera utzi:

(41) A: [Aitor]_G jin da unibertsitatera.

B: Ez, ez da nehor jin.

(42) A: [Aitor]_G da jin unibertsitatera.

B: #Ez, ez da nehor jin.

Ez da auresuposizioarena bi egitura motak desberdintzen dituen parametro bakarra, perpausak adierazten duen gertakariaren bakartasuna ere berrindartua delako egitura indartuetan; hots, erdibitutako egiturak bezalaxe NZ eta galdegai egitura indartuak bereziki exhaustiboak dira. Ikus, adibidez, (43a-b)-ko bikotea, non galderan, beste norbait ere etorri dela inplikatzeko den. Honelako testuinguru batean ezinezkoa da egitura indartua erabiltzea:

(43) a. Nor besterik jinen da?

b. *Nor besterik da jinen?

Kontraste bera lortzen ote da frantsesez? Gehitu dezagun exhaustibotasun eza inplikatzeko duen *quoi d'autre* ('zer besterik') goragoko (27a-d) galderetan (44a-d).

- (44) a. Qu'as-tu vu d'autre?
 zer AUX zu ikusi besterik
 "Zer besterik ikusi duzu?"
- b. Qu'est-ce que tu as vu d'autre?
 zer EST-CE QUE zu AUX ikusi besterik
 "Zer besterik ikusi duzu?"
- c. Tu as vu quoi d'autre?
 zu AUX ikusi zer besterik
 "Zer besterik ikusi duzu?"
- d. *C'est quoi (d'autre) que tu as vu (d'autre)?
 EXPL AUX zer besterik C zu AUX ikusi besterik
 "Zer besterik da ikusi duzuna?"

Espero genezakeen bezala, ezkerretaratze egiturak gramatikalak dira (44a, b). Hauek bezala, NZ sintagma *in situ* uzten duen estrategiarekin ere irakurketa ez-exhaustibo bat lortu daiteke. Erdibitutako egitura da exhaustibotasun eza onartzen ez duen bakarra. Ondorioz, euskarazko egitura indartuak, frantsesezko perpaus erdibituak bezalakoak dira, berebiziko auresuposizio eta kontraste propietateak dituztela⁵.

Hurrengo atalean egitura indartu hauen analisi posible bat iradokiko dugu.

6. ANALISI BATERANTZ

Ikusi dugunez, galdera eta galdegai egitura indartuak perpaus erdibitu eta frantsesezko *in situ* galderekin konpara ditzakegu haien interpretazioaren aldetik. Honela bada, bi egitura mota desberdin genituzke; NZ edo galdegai egitura 'estandarrek' eta NZ edo galdegai egitura 'indartuak'. Haien arteko aldea sintaktikoa izateaz gain semantikoa ere badenez gero egituron analisi orotariko batek modu bateratuan eman beharko luke kontu bi egitura motek erakusten dituzten propietateez.

Irurtzun 2007-k galdegai egitura estandarren sintaxi-semantika interfazearen analisi minimalista bat eskaintzen du Rizzi 1997-ren perpaus ezkerreko periferiaren analisi kartografikoa eta Herburger 2000-ren galdegaiaren analisi semantikoa uztartuz. Semantikaren alorrari dagokionez Herburgerrek Davidson 1967 eta ondokoek garatutako gertakaritan oinarritutako semantikaren ildoko proposamen bat egiten du. Ikuspegi neo-Davidsondar

⁵ Lafitte 1944: 48-k dioenez, galdegai indartu egitura baten aurrean, "pour le traduire, le français *ce que* est obligatoire".


honen arabera, perpaus bat funtsean gertakari baten deskripzioa da, non predikatuak gertakariaren edukia zehazten duen. Honela, parte-hartzaileak (argumentuak) gertakariarekin θ -rolen bidez lotutako predikatuak izango dira, eta elkarren artean konjuntzio bidez koordinatuak (ik. Parsons 1991, Schein 1993 eta Pietroski 2005, besteak beste). Honela bada, (45a)-ko perpausari (45b)-ko *forma logikoa* legokiokoe:

- (45) a. Jonek pilota eraman du.
 b. $\exists e$ [eraman(e) & Egile(e, Jon) & Gai(e, pilota) & Orain(e)]


Galdegai efektuei dagokienez, Herburgerrek gertakarien gaineko kuantifikatzaile existentziala bitarra dela proposatzen du. Kuantifikatzaileak bere murriztapenean esaldiaren ‘eztabaidagaia’ hartuko du (hots, galdegai ez den guztia, hondoa) eta besarkaduran galdegaia⁶:

- (46) a. [Jonek]_F eraman du pilota.
 b. $\exists e$ [eraman(e) & Gai(e, pilota) & Orain(e)] Egile(e, Jon) & eraman(e) & Gai(e, pilota) & Orain(e)

Irurtzun 2007-k Herburgerren sistemaren moldaketa bat proposatzen du honelako galdegai-egituretan kuantifikazio existentziala baino gertakarien deskripzio definitu bat dugula proposatuz (δe [AURRESUPOSIZIOA][GALDEGAIA]). Kuantifikatzaile hau perpausaren ezker-periferiako Fin^o buruan kokatuko litzateke, galdegaiaren posizioaren azpitik eta perpausaren gaineko besarkadura hartuz:



⁶ Hemen sinplifikatzen ari gara; izan ere, Herburgerren ildoari jarraiki, ez da soilik galdegaia baizik eta perpaus osoa kuantifikazioaren besarkadura osatzen duena (ik. eztabaidarako Herburger 2000, Irurtzun 2007).



Sintaxi-semantika interfazea modu dinamiko eta artikulatu batean gertatuko da δ -sintagma topiko posiziora igo eta gero birproiektatzen duenean (ik. Irurtzun 2007 zehaztapenatarako).

Interfaze honen ondorioz, eta goian aipatutako adibidearekin segituz, (48a) bezalako perpaus batek (48b) bezalako forma logiko bat izango luke:

- (48) a. Nik hautsi dut katilua.
 b. δe [hautsi(e) & Gai(e, katilua)] Egile(e, ni)

Egitura logiko honek galdegai-egitura estandarrek dituzten auresuposizio eta kontraste ezaugarriak modu naturalean azaltzen ditu: (i) alde batetik emana da (48b)-ko irudikapenak auresuposizioak eragitea: deskripzio definituaren murriztapenak, diskurtsiboki anaforikoa izaki aurrekari bat behar du hari lotzeko. (ii) Beste alde batetik galdegai-egituren kontraste izaera ere deskripzio definituaren ‘bakartasun’ inplikaziotik deribatuko litzateke. Hau Irurtzun 2007-k δ -ri lotutako egiunezko inplikaturatzat jotzen du. Honela bada, balio hauek inplikatura bidez sartutakoak izanik bertan behera gera daitezke gainerako testuinguruak hala eskatzen baldin badu (inplikatura ‘kantzelazioa’ deritzona). Ikus adibidez (49)-ko adibidea, non galdegai-egiturak eragindako kontrastea bertan behera gelditzen den:

- (49) Jonek hautsi du katilua, baina ez du bakarrik egin.

Zein dateke, bada, galdegai egitura estandar eta indartuen arteko aldea jasotzeko modua? Hemen ez dugu analisi osorik emango baina artikuluan zehar ikusitako propietateen harira litekeen analisi bat iradokiko dugu. Ikusi dugunez, galdegai egitura indartuen berezitasun semantikoa eragiten duten kontraste eta auresuposizio berrindartuetan datza, perpaus erdibitu eta frantsesezko *in situ* galderetan bezala. Galdegai egitura estandarrek eragiten dituzten auresuposizio eta kontrastea baino markatuagoa da egitura indartuetakoa, enfatikoagoa da. Honela bada efektu horiek jasotzeko proposatu nahiko genukeen bidea egitura indartuetarako beste kuantifikatzaile mota bat postulatzeari litzateke: ψ , ‘den bakarra’

balioarekin. Kuantifikatzaile berezi honek galdegai egitura estandarretako δ kuantifikatzaileak dituen propietate berberak edukiko lituzke baina harekiko bi diferentzia nagusi ere: (i) Sintaktikoki, aditz-laguntzailearen mugimendu sintaktikoa eragiten duen tasun bat duke eta (ii) datxezkion ‘existentzia’ eta ‘bakartasun’ ezaugarriak ez dira inplikatura bidezkoak, lexikoki emandakoak baizik, hots, ezin direla bertan behera utzi (ikus (40) eta (42) adibideak gorago). Honela bada, galdegai egitura indartuetan honelako forma logiko bat genuke:

- (50) a. Nik dut katilua hautsi.
b. ψ [hautsi(e) & Gai(e, katilua)] Egile(e, ni)

Hots, ‘katilua hausteaz den gertakari bakarrak ni nau egiletzat’. Honelako proposamen batekin modu errazean azal daitezke egitura indartuotako ezaugarri eta murriztapenak: alde batetik, existentziazko baieztapen lexikoak auresuposizio berrindartua emango luke, honela, ezinezkoak egiten dira galdera egitura indartuetan ezezko erantzunak (galderak eta erantzunak logikoki kontraesana eragiten dute). Beste alde batetik ψ -k eragiten duen gertakariaren bakartasun esplizituak galdegai egituraren kontrastibotasuna berrindartzen du eta gertakari aniztasuna ezinezko egiten. Honela, ezinezkoa gertatzen da (49)-n egin bezala galdegaiak sortutako auresuposizioa ukatzea:

- (51) ??Jonek du katilua hautsi, baina ez du bakarrik egin.

Ildo beretik, galdera egitura indartua bateraezina gertatzen da NZ anitzezko galderekin (izan ere NZ anitzezko galderak gertakari aniztasuna adierazten baitu).

Oro har ikusi dugunak pentsarazten digu egitura indartuena perpaus nagusiko fenomeno bat dela, perpaus nagusiko konplementatzaile sistemarekin lotua. Honela ψ buruaren distribuzioa baieztapen buruen banaketarekin lotu beharko genuke hizketa-ekintza nolakoa den adierazten dutenekin. Lan hau ordea, ondoko ikerlanetarako utziko dugu.

7. ONDORIOAK

Artikulu honetan nafar-lapurteran ohikoak diren galdegai eta galdera indartu egiturak aztertu ditugu. Ikusi dugunez, egitura hauek gehitutako enfasi batek bereizten ditu; egitura estandarrek baino auresuposizionalagoak dira (hots, haien auresuposizioa ezin da bertan behera utzi) eta hein berean, kontrastiboagoak ere badira. Gure analisisian egitura hauek

erdibitutako perpausekin konparatu ditugu eta erakutsi dugunez, hauek erakusten dituzten propietate semantiko berberak erakusten dituzte egitura indartuek.

Gure helburua ez da izan egitura indartu hauen analisi xehe bat egitea. Aitzitik egitura hauen berariazko hurbilpen bat eskaini nahi izan dugu etorkizunean xehekiago aztertu ahal izateko hain labain gertatzen diren fenomenoak. Hamaika lan uzten ditugu etorkizunean argitzeko (modalek duten distribuzioa, ezeztapenarena, komunztadura eta abar).

ERREFERENTZIAK

- Baunaz, L., 2005, "The syntax and semantics of wh in-situ and existentials: the case of French", in B. Arsenijević *et alii* (arg.), *Leiden Papers in Linguistics* 2-2, 1-26.
- Boeckx, C., 1999, "Decomposing French Questions", in *UPenn Working Papers in Linguistics* 6-1, 69-80.
- Cheng, L. & J. Rooryck, 2000, "Licensing wh-in-situ", in *Syntax* 3.1, 1-19.
- Chang, L., 1998, "Wh-in-situ phenomena in French", eskuizkribua: U. of British Columbia.
- Clech-Darbon, A., G. Rebuschi & A. Rialland, 1999, "Are there cleft sentences in French?", in G. Rebuschi & L. Tuller (arg.), *The Grammar of Focus*, Amsterdam: John Benjamins: 83-118.
- Davidson, D.D., 1967, "The logical form of action sentences", in N. Rescher (arg.), *The logic of decision and action*, Pittsburgh: Pittsburgh University Press, 81-95.
- Doetjes, J., G. Rebuschi & A. Rialland, 2004, "Cleft Sentences", in F. Corblin & H. De Swart (arg.), *Handbook of French Semantics*, Palo Alto (CA), AEB, 529-552.
- Elordieta, A., 2001, *Verb movement and constituent permutation in Basque*, doktorego tesia, HIL/Leiden University, LOT Dissertation Series.
- Etxepare, R. & J. Ortiz de Urbina, 2003, "Focalization", in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter, 459-515.
- Gundel, J.K., 1977, "Where do Cleft Sentences Come from?" , in *Language* 53-3, 543-559.
- Hedberg, N., 2000, "The Referential Status of Clefts" in *Language* 76-4, 891-920.
- Herburger, E., 2000, *What Counts: Focus and Quantification*, Cambridge: MIT Press.
- Irurtzun, A., 2007, *The Grammar of Focus at the Interfaces*, doktorego tesia: UPV/EHU.
- Jeong, Y., 2007, "Multiple Wh-fronting in Basque", in A. Conroy, C. Jing., C. Nagao & E. Takahashi (arg.), *University of Maryland Working Papers in Linguistics* 15, 98-142.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, berrikusitako eta zuzendutako argitalpena, 1978, Donostia: Elkarlanean.

- Mitxelena, K., 1981, "Galdegaia eta Mintzagaia Euskaraz", in *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 57-81. [Berrarg. in *MEIG VI: Hizkuntzalaritzaz I*, 137-168].
- Ortiz de Urbina, J., 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris: Dordrecht.
- Osa, E., 1990, *Euskararen hitzordena. Komunikazioa zereginaren arauera*, Leioa: UPV-EHU.
- Oyharçabal, B., 1985, "Behako bat ezezko esaldieri", in *Euskera XXX* (2. aldia), 103-115.
- Parsons, T., 1990, *Events in the Semantics of English*, Cambridge: MIT Press.
- Pietroski, P., 2005, *Events and Semantic Architecture*, Oxford: Oxford University Press.
- Rebuschi, G., 1983/1997, "A Note on Focalization in Basque", in *Essais de linguistique basque*, ASJUren gehigarriak XXXV, UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia: 31-41.
- Reglero, L., 2002, "Multiple Questions in Basque", eskuizkribua: UConn.
- Rialland, A., J. Doetjes & G. Rebuschi, 2002, "What is Focused in *C'est XP qui/que* Cleft Sentences in French?", in *Proceedings of Speech Prosody 2002*, URL: <http://aune.lpl.univ-aix.fr/sp2002/papers.htm>
- Rizzi, L., 1997, "The fine structure of the left periphery", in L. Haegeman (arg.), *Elements of grammar*, Dordrecht: Kluwer, 281-337.
- Rochemont, M.S., 1986, *Focus in Generative Grammar*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Saltarelli, M. *et al.*, 1988, *Basque*, London & New York: Croom Helm.
- Schein, B., 1993, *Plurals and Events*, Cambridge: MIT Press.